

Idazkaria
Wopio! Alkate

Bandera Espainarraren inguruan EAJ-PNV taldeak Udal Plenorako aurkeztzen duen Mozioa:

Tolosako Udaletik, Tolosar herriaren erakunde gorenetik, gure herriarekiko daukagun konpromiso etenezina berresten dugu.

Gizartearen borondate askearekiko gur konpromisoa. Konpromiso hori betez, esaten dugu ezin zaiola uko egin euskal herriaren izatea aitortzeari eta euskal herria borondate kolektiboa duen subjektua den kultura, ekonomia eta politika aldetik.

Urte osoz, berresten dugu, Euskal herritarren erabakitzeko ahalmenaren aitortza, ezinbesteko eskubide demokratikoa dela. Euskal gizarteak, bere aniztasunetik, behin eta berriro adierazi du, erabakitzeko eskubidearen aldeko iritzia.

Aniztasuna mantentzeko demokraziak eskaintzen duen bermea, nahi kolektiboa gauzatzeko aukeran dago; subiranotasun horietatik ez datozen nahi kolektiboen instituzionaltzea baztertzen duten, nazioen subiranotasunen betorik gabe gauzatzean.

Bere burua horrela definitzen duen edozein demokraziaren funtsetako bat da aniztasunarekiko izan behar duen errespetua. Baina aniztasuna ez da bitarteko erretoriko bat soilik, norbanako zein taldeko eskubide oro errespetatuko dituen bizikidetzaren oinarria baizik.

Argazkiak uniformatu nahi izateak totalitarismora eramaten du, inoiz ez bizikidetzara.

Beraz demokraziaren uste sendo hauetatik oso urrun dago gure erakunde guztietan bandera espainiarra ezartzea, eta gainera, "ordezkatzten dituen konstituzioaren balio, printzipio, eskubide eta beharren" eta "Estatu espainolaren, batasun, independentzia, subiranotasun eta zintzotasunaren" adierazpen gisa egitea.

Horregatik, agindu judizialari zor zaion erespuetua eta epaia nahi eta nahiez bete beharraren aurrean, baina gure ardurari aurre eginez, ondorengo hau onar dadin proposatzen dugu:


Tolosako Udalbatzak, inposizio hau desagertu artean plaka bat jartzea onartzen du ondorengo testuarekin:

"Herri bat herri da, iragan eta etorkizun, osatzen duten pertsona gehienek hala sentitzen dutenean. Ikur bat ikur da: logo, oihal zati, margo. Gertatu ohi da ikurra herri baten ametsaren sinbolo izatea. Orduan baliagarri da, gutasunaren sentipen txikien piztaile delako, ez gehiago.

Gerta liteke ikurra herriaren ametsaren sinbolo ez izatea. Indarraren legez eta legearen indarrez ezarria izatea. Orduan ere baliagarri izan liteke, inposaketaren sinbolo bihurtzen baita, bizilegezko gabezien gogoratzaile.

Bandera espainiarra zigor mehatxupear ezarritako sinboloa da gure erakundean. Tolosar gehienon nahiaren aurka eta beren ordezkarien erabakimenaren kontra jarrai dago. Herritarren borondatearekiko errespetu falta da, askatasunez erabakitzeko eskubidearen ukapena. Horra bada bandera, egoeraren ikur, jarri duenak berak jarri nahi ez duen oihal, haizeak ironiaz darabilena."

Tolosa, 2018ko otsailaren 22a



EAJ-PNV Udal taldea